



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko martxoaren 18a

25. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako 2009ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertsolaritza kultur intereseko ondasun ez-material deklaratzeko espediente hasi dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Ministerio Fiskala premiatzen da justizia auzitegietan esku har dezan, Nafarroan atxilotutako pertsonen tratatu txar eta torturei buruz jakitera emandako testigantzak argitze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu-agentzien jardura kontrola dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Ignazio etorbideko Jauregiko fatxadari ageri den Nafarroako armarrira ordeztu dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu-emanein ekin diezaien, txirrindularien 2012ko Espainiako Itzulia Nafarroan, Iruñean, hasi dadin. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak deitoratzen du Euskalerrria Irratiaren nahi gabeko irregulartasun-egoeraren aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jarrera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Estatuko Gobernua premiatzen da 10 neurri hartuz, tortura desagerrarazte aldera. Mozioa erretiratzea (13. or.).

—Adierazpen instituzionala, Nikaraguako haurren aurkako sexu-indarkeriari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Liburutegiko larrialdietarako eta segurtasuneko gaztelaniazko barne-errotulazioari buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egina (14. or.).

—Galdera, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta 2010ean betetako gastuari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (14. or.).

—Galdera, jakiteko ea inork urratu ote dituen Nafarroan, 2010ean, kalitate bereziko markei buruzko araudia eta baldintza-orriak, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (15. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena. Akats zuzenketa (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 2009ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2010eko irailaren 13an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2009ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parla-mentura. Hari buruz, Comptos Ganberak txosten bat eman du, 2011ko martxoaren 7ko 19. Nafarro-ako Parlamentuko Aldikari Ofizialean argitaratua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 156. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako 2009ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako 2009ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabai-datu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets dai-tezen, hori guztia foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parla-mentura behar dira igorri dagokion foru lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2009ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako izapideak, Comptos Ganberak emana du behar den iriz-pena eta izapidetua dago Nafarroako 2009ko kontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parla-mentuari buruzko Erregelamenduaren 156. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egin dira Nafarroako 2009ko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Haien edukia Nafarroako Gobernuak Interneten duen atarian (www.navarra.es) eta honako agiri eta euskarriotan bildu da:

– Paperezko argitalpen batean, non kontuak osatzen dituzten argibideen atalik nabarmenenen edukia eta laburpena azaltzen baitira: kontuak osatzen dituzten erakundeen aurrekontuetako likidazioak eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuen alderdirik nabarmenenak. Sozietate publikoen kontuen laburpena dakarren agiria ere erantsia dago.

– Euskarri digital batean, non entitate eta sozietate publikoen kontuak modu luzean eta haien auditoretza-txostenak ageri baitira. Aurrekontuetako programen oroit-idazkiak ere sartuta daude euskarri horretan.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2011ko martxoaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2010eko azaroaren 9ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertsolaritza kultur intereseko ondasun ez-material deklaratzeko espedientea has dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bertsolaritza kultur intereseko ondasun ez-material deklaratzeko espedientea has dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko xedatutakoaren arabera, ondoko premiazko mozioa aurkeztu du Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

2011ko martxoaren 4an, Vianako Printzea Era-kundea-Kultura eta Turismo Batzordeak lan bilera egin zuen Nafarroako Bertsozale Elkarteko ordezkariekin bertsolaritza Nafarroako kultura ondare ukiezina izendatzeko aukerari buruz informazioa bildu eta hausnartzeko.

Lan bilera horretan batzordeak ikas ahal izan zuenez, bertsolaritza euskarazko ahozko inprobisazio kantatua da; hau da, abestuz, errimatuz eta neurtuz burutzen den berbaldi bat-batekoa. Bertsolaria, munduko inprobisatzaile gehienak ez bezala, musika-tresnaren laguntzarik gabe aritzen da bertsotan ahozko literaturan txertatzen den

hitzeko sormena landuz. Bertsolaritza Euskal Herriko ahozko tradizio joriaren zati da, herri kulturaren adierazpena eta sormen artistikoa batzen dituena, hala sustrai tradizionala nola eguneratze modernoak uztartzen dituena.

Nafarroan bertsolaritza euskal kulturaren adierazpenetako bat da eta kultura ondare ukiezina ren adierazpena. Bertsolaritzak tradizioa luze eta herrikoa du Nafarroan eta, garrantzitsuena, egun bizirik dago. Nafarroako euskaldunek bertsolaritzaren tradizioa jaso, transmititu eta belaunaldi berriek gaurkotu eta egungo munduan txertatu dute. Horren seinale dugu bertsolaritza gaztea eta urbanoaren gertakaria.

2003an UNESCOk Kultura Ondare Ukiezina Babesteko Konbentzioan ezinbertzeko erreferentzia irizpideak eman zituen eta Nafarroako Gobernuak horiek hartu zituen kontuan 14/2005 Foru Legean, Nafarroako Kultura Ondareari buruzkoan.

Kultura ondare ukiezinararen arloan Interes Kulturaleko Ondasunen Deklarazioa ematea aurreikusita dago. Nafarroako Interes Kulturaleko Ondasunen Deklarazioa arautzen duen urriaren 3ko 217/1986 Foru Dekretuan (abenduarren 30eko 572/1991 Foru Dekretuak aldatua) eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan interes kulturaleko ondasunen deklarazioak Nafarroako Gobernuaren erabakien bidez egiten dira. Hala eman zaie Lantz, Ituren eta Zubietako inauteriei eta Hiru Behien Zergari ondare kulturaleko izendapena.

Hori horrela, Nafarroa Bai parlamentu taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bertsolaritza interes kulturaleko ondasun ukiezina deklaratzeko espedientea ireki

dezan, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2011 ko martxoaren 4an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Ministerio Fiskala premiatzen da justizia auzitegie-tan esku har dezan, Nafarroan atxilotutako pertsonen tratu txar eta torturei buruz jakitera emandako testigantzak argitze aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Ministerio Fiskala premiatzen baita justizia auzitegietan esku har dezan, Nafarroan atxilotutako pertsonen tratu txar eta torturei buruz jakitera emandako testigantzak argitze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ziur gaude gaur egun gizartearen gehiengo handi batek nahi duela tortura panorama politiko-tik desager dadin. Horra Nafarroako indar politiko sindikal eta sozialek Lokarri bezalako erakundeen laguntzarekin sustatutako Gernikako Akordioaren ekimena, askoz ere urrunago joan nahi duena eta ahalik eta eragilerik gehien bildu nahi dituen. Hortaz, gure asmoa da ekimena zabaltzea Nazio Batuen Erakundeak eta Amnesty Internationalek

torturari buruz egindako gomendioak bere egiten dituzten guztiei.

Lehenik eta behin, arreta jarri nahi dugu azken hilabeteotan atxilotutako pertsonarik gehienek egindako tortura-salaketetan (17 salaketa 2010eko irailaz geroztik). Bigarren helburua, eta nagusia, da ez dadila beste inor torturatu, eta horretarako uste dugu ezinbestekoa dela giza eskubideak aldeztu dituzten nazioarteko erakundeek, esate baterako NBE-ek eta Amnesty Internationalek, gomendatutako eta babestutako neurriak aplikatzea, zehazki tortura behin betikoz desagerraraztearen Torturaren Aurkako Taldearen bidez aurkeztutako hamar neurriak.

2008ko maiatzean Espainiako Estatura eginiko bidaia batean tortura gaietarako Nazio Batuen informatzaile bereziak eginiko txostenean, atxilotutako egoeraren berri ematen da eta auzitan jartzen da inkomunikazio-araubideko atxiloketa, haren ustez tortura eta tratu txarrak gertatzeko bidea ematen duelako. Halatan, atxiloketa inkomunikatua zeharo desagerraraztea gomendatzen du, eta atxilotuei tratu debekatua emateko arriskua handitzen duela berresten du. Hartara, tratu txarren kasuak ekiditeko, eskatzen du atxiloketaren bidez bidez zaintza-neurriak aplikatu daitezkeen eta atxilotuak haiek aukeratutako sendagileek azter ditzaten. Espainiako agintariei irmo gomendatzen die ikerketa azkar, independente, inpartzial eta osoa abiaraz dezaten, tratu txarrak egin direla pentsatzeko arrazoiak dauden guztietan. Orobat uste du arazo bat dela Auzitegi Nagusia bezalako auzitegi bakar batek edukitzea arlo horretako eskumen osoa. Kondenatuek aurkeztu ahal dituzten errekursoak aztertzen ditu, eta uste du ez dagoela epaiaren alderdi guztiak eta ezarritako zigorra aztertzerik.

Tortura da dauden indarkeria-adierazpide anker eta bihozgabeenetako bat, eta giza eskubide oinarrikoenen urraketa larri-larria izateaz gain, gaur egun dugun oztoporik handienetako bat da agertoki demokratiko berri bat eraikitzeko, indarkeria oro baztertuko duena eta pertsona guztien eskubide guztiak ziurtatuko dituena. Arestian esan dugun bezala, ideologiak eta ezberdintasun politikoak gorabehera, giza eskubide oinarrikoenak ukitzen dituen auzia dugu honako hau. Parlamentu honetan gaudenok pertsona guztien giza eskubide guztien aldeko apustua egin behar dugu, eta horrenbestez, giza eskubideei eta tortura-salaketei buruzko ikerketa batzorde bat eratu beharko genuke. Eskaera bikoitz hori sendotze aldera, esan behar dugu beharrezkotzat jotzen zela Nafarroa osoko udalen eta hautetsien babesaren izan zezan, eta hala izan da.

Gernikako Akordioak eragileek, bai eta beste gizarte eragile batzuek ere, Auzitegi Nazionalaren aginduz azken polizia-operazioetan atxilotutako pertsonen ahaideekin, lagunekin eta kideekin hainbat bilera egin ondoren, honako ekimen hau Nafarroako Parlamentuan aurkeztea erabaki dugu, tortura behin betikoz desagerraraztera eraman dezaketen ekimenak abian jartzeko xedez:

1. Nafarroako Parlamentuak Ministerio Fiskala premiatzen du justizia auzitegietan esku har dezan, Nafarroan atxilotutako pertsonak tratatu txar eta torturari buruz jakitera emandako testigantzak argitzeko eginbideak abiaraz ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatuak Gobernuak premiatzen du 10 neurri hauek ezar ditzan, tortura desagerrarazte aldera giza eskubideak aldeztu dituzten nazioarteko erakundeek, esate baterako NBE-ek eta Amnesty Internationalek, bai eta Torturaren Aurkako Taldeak ere, proposatu eta babestutakoak:

a.- Inkomunikazio-araubidea eta araubide hori aplikatzea ahalbidetzen duen araudi osoa indargabetzea.

b.- Atxilotuen eskubideak murrizten dituen lege-araudia indargabetzea. Zehazki, Prozedura Kriminalaren Legeko 520. eta 527. artikulua.

c.- Auzitegi Nazionalaren eskumenak desagertzea eta epaile natural batek epaitua izateko eskubidea ziurtatzea.

d.- Atxilotu orok konfiantzazko sendagile batek bisitatua eta artatua izateko duen eskubidea ziurtatzea, hala polizia-etxean nola epaitegian.

e.- Atxilotu aldi osoa irudi eta soinu bidez grabatzea, eta grabazio horiek atxilotuaren defentsako abokatuaren eskura egotea.

f.- Atxilotu orok konfiantzazko abokatu batek artatua izateko duen eskubidea ziurtatzea, eta harekin komunikazio pribatua izateko aukera ziurtatzea.

g.- Tortura kasuengatik irekitako prozesu judizial guztiak burura eramatea eta behar adina ikertu gabe artxibatutako tortura kasu guztiak irekitzea eta epaitzea.

h.- Tortura delitu preskribaezina dela deklaratzeko.

i.- Tortura bidez lortutako aitorpenetan oinarritutako epaiketak eta epaiak baliogabetzea.

j.- Torturatutako pertsona guztiek laguntza mediko, juridiko eta psikologiko egokia dutela ziurtatzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu-agentzien jarduera kontrola dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enplegu-agentzien jarduera kontrola dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentariak, talde horren eledun gisa eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Enplegua lortzea da pertsona guztientzat inklusio soziokulturala eta erkidego-partaidetza lortzeko bide nagusia. Beharriak ekonomikoki asetzeko eta ekimen pertsonalak garatzeko ere balio du.

Lan-merkatuak eskaintza eta eskaria arautzen ditu, gizarte bakoitzean sentitutako eta sortutako beharriak dagokienez. Pertsona fisikoen eta juridikoen lan-eskubideak arautzen ditu orobat, baina lan-erregulazioen onurak ez dira berdin iristen lan-sektore guztietara, eta sektore guztiak ez daude kulturalki berdin baloratuta. Hori da, hain zuzen ere, etxeko enpleguaren sektorearen kasua, zeinak lan-araudi berariazkoa baitu eta aldaketa soziokultural eta ekonomikoen norabide berean, eskaintzaren, eskariaren eta benetako beharriaren norabide berean egin beharko baitu aurrera eta horietara egokitu beharko baita. Sektore horrek, bere bilakaeran, familiei eta pertsonen buruzko beste gizarte-baliabide batzuen laguntza beharko du.

Etxeko enpleguak susmo txarrak eta ideia kontraesankorrak eragiten ditu. Susmo txar horietako asko gizarte bakoitzaren aurreiritzi eta ideia aurrez bururatuetatik heldu dira.

Etxeko enplegua ez da laneko sektore gisa diskriminatu behar, eta gainontzeko sektoreak bezala, behar bezala araututa eta baloratuta egon behar du. "Zaintze-lanak" dira sistema sozial eta ekonomikoaren oinarri ikusezina.

Etxeko enplegua erdibidean kokatzen da, merkatu-eremuaren –ordaindua baita– eta eremu pribatuaren artean; izan ere, enplegu-emaileen etxean egiten da, eta zerbitzu-emate hutsetik harago doan harreman oso pertsonalizatua sortzen da. Etxekoandreek egiten dutenean ez denez sozialki lan gisa hartzen, nekez izanen du begiramen handirik edo guztiz formalizatuko da, enplegu gisa kanpora ateratzen eta ordaintzen denean. Hori dela-eta hartzen da sasi-enplegu baten gisa.

Hiru ezaugarri eragiten diete zuzen-zuzenean informaltasunari eta prekarietateari. Lehena da jarduera etxebizitza partikular batean egiten dela, eta horrek berekin dakar eguneroko edo noizbehinkako bizikidetasuna gertatzea enpleguaren eta enplegu-emaileen artean, eta ondorioz, nolabaiteko harreman afektiboa sortzea, halako moduan non lan-harremana ambigua den eta harreman hori kontratua egiten duenaren etxe motaren arabera den. Bigarrena da egin ohi den lan-mota, eta hirugarrena, jardueraren feminizazioa.

Kontuan hartu behar da orobat gero eta emakume gehiagok uzten dutela sorterrria bizitza-estrategia berrien bila, eta beste pertsona eta etxe batzuk zaintzen aurkitzen dutela lana.

Erakundeekiko Harremanetarako Batzordearen lan bileran aditu genuenez –Intermon Oxfamek "Mundua zabalduz" txostena eta Gizakia Herritar Fundazioko Etorkin Aholkularitza Juridikoak Nafarroako etxeko enpleguari buruzko txostena azaldu zizkigutenean–, lanaren banaketa sexuala gertatzen da, eta emakume etorkinek –gehienak emakume etorkinak baitira– negoziatzeko ahalmen txikiagoa dute. Nafarroan, halatan, Gizarte Segurantzaren alta emandako 3.800 pertsonetatik, % 95 emakumeak dira, eta horietako % 68,4 atzeritarrikak dira.

Etxeko lanaren berezitasunak jasotzen dituen definizio juridikorik ez egotearen ondorioz, besteren konturako langileek baino begiramen txikiagoa dute etxeko enplegatuek.

Langabeziako prestaziorik ez egoteak egoera onartezinak onartzera eraman dezake gure Foru Komunitatean gizarte- edo familia-sarerik ez duten barne-enplegatuen kasuan, bai baitakite irazpenak berekin dakarrela egun berean lanik gabe, diru-sarrerarik gabe eta etxerik gabe gelditzea.

Alegia, gainontzeko langileentzako indarrean diren arauak arrotz zaizkion izar-laino batean egiten da etxeko lana. Etxeko enplegatuek ez dute Langileen Estatutuaren babesik; aitzitik, araubide askoz ere murriztagoa eta zaharkituagoa dute.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Kontrola dezan enplegu-agentziak lege-parametroei jarraikiz jarduten direla: enplegu-agentziek

Nafarroako Enplegu Agentziaren baimenarekin jardun behar dute.

2. Bitartekotza susta dezan, enpleguko zerbitzu publikoen bidez. Nafarroako Enplegu Agentziak eskaini behar du etxeko lana.

3. Baldintzak bateratzeko akordioak susta dituzan: Nafarroan etxeko enplegurako hitzarmen kolektiboa bila dezan.

4. Lan-ikuskaritza bultza dezan, abusuak ekiditeko eta bizitoki partikularren bortxaezintasunaren printzipioa errespetarazteko.

5. Espainiako Gobernuari eska diezaion alda dezan abuztuaren 1eko 1424/1985 Errege Dekretua, familiaren etxeko zerbitzuaren izaera bereziko harremana arautzen duena.

Iruñean, 2011ko martxoaren 10ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Ignazio etorbideko Jauregiko fatxadan ageri den Nafarroako armarría ordez dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita San Ignazio etorbideko Jauregiko fatxadan ageri den Nafarroako armarría ordez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltza-

reko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

“Gobierno del Estado. Decreto número 411

En el resurgir de España destacó Navarra de modo señalado por su heroísmo y sacrificio. Fue Navarra la provincia en que se fijaba la mirada de los españoles en los días tristes del derrumbamiento de la Patria; fue el crédito de sus virtudes el que la convirtió en sólida base de partida de nuestro Alzamiento, y fue su juventud en armas la que en los primeros momentos formó el nervio del Ejército del Norte. Durante toda la campaña los navarros, con su bravura legendaria, encuadrados en los Tercios de Requetés, en Banderas de Falange y en Batallones, rivalizaron en valor con las más distinguidas fuerzas del Ejército.

España entera rinde homenaje y simpatía a las virtudes y alto espíritu de un pueblo, en que no se sabe qué admirar más, si el valor de los

que valientemente mueren en los frentes o la generosidad y patriotismo de quienes, alegres, entregan a la Patria lo más querido de los hogares.

Es la Cruz Laureada de San Fernando el más alto galardón de nuestras Milicias, el símbolo más destacado del valor y del sacrificio heroico. Por ello, nunca puede estar más justificado la ejecutoria que una Cruz Laureada de San Fernando a las Cadenas gloriosas y simbólicas de su Escudo.

Por todo ello dispongo:

Artículo único: Como recuerdo a las gestas heroicas de Navarra en el Movimiento Nacional y homenaje a quien tan reciamente atesora las virtudes de la Raza, concedo a la provincia de Navarra la Cruz Laureada de San Fernando, que desde hoy deberá grabar en sus Escudos.

Dado en Burgos a ocho de noviembre de mil novecientos treinta y siete. II Año Triunfal.

Francisco Franco

Horra, hitzez hitz, diktadorearen dekretua; horren bidez, San Fernandoren Gurutze Erramuduna eman zitzaion Nafarroako probintziari, eta haren armarran gurutze hori sartzeko betekizuna ezarri zion, zilegitasunez eraturako Gobernu aurkako altxamendu bortitzean parte hartzeagatik, zeinaren ondorioz hiru mila hilketatik gora gertatu baitziren herrialde honetan, gerrako frontean hil zirenez gain, asko eta asko izan zirelako gerrako frontera joan behar izan zutenak bizitza salbatzeko aukera gisa.

Matxinoen garaipen militarrek berekin ekarri zuten Nafarroako gizartearen haustura, zeinaren zati handi batek txirotu, umiliatu eta jazarrita ikusi baitzuen bere burua.

Diktadorea hil ostean, legezkotasuna aldeztu zutenei eragindako kaltea aitortzeko urrats herabeak egiten hasi ziren –zeregin hori bukatu gabe dago oraindik–, bai eta garaileen sinboloak kentzen ere, benetako berradiskidetze baterako alde aurretik eman beharreko pauso gisa.

Agian, asmo horren barruan sartu behar da apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legeko xedapen indargabetzaile bakarra, zeinak ondokoa baitio hitzez hitz:

“Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, bertan aipatutako agintariak Francoren erregimenaren sinbologia kendu eta ordeztu egingen dute. Eraikin historiko artistiko deklaraturikoe-tan dauden sinboloak kendu eta Vianako Printzea Erakundera bidaliko dira, haren zaintzapean uzteko, kentzea ezinezkoa denean salbu.”

Urteak dira Francoren erregimenaren sinbologia kentzeko ezarritako epea gainditu zela, eta, beraz, legez kanpokoa ez ezik diktaduraren biktimganako eta oro har demokratenganako iseka ere bada Nafarroan oraindik ere egotea Francok emandako gurutze erramuduna daramaten armarrak, are gehiago sinbolo horiek Nafarroako Gobernuaren egoitzaren fatxada nagusian daudela ikusita.

Egitan, Nafarroako Jauregian, Sarasate Pasealekura ematen duen fatxadan, jauregiaren alderdirik sinbolikoena hartzen duen aldean hain zuzen ere, San Fernandoko Gurutze Erramuduna daraman Nafarroako armarrak ageri da erremateko frontoi trianguluarrean, iragan mendeko erdialdean jarria.

Inork irudika al lezake Alemaniako Gobernuaren egoitza svastika buru duela, edo Moncloako Jauregia arrano, uztarri eta geziekiko Espainiako armarrarekin? Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak hiri honetan duen egoitzak aspaldi aldatu zuten bere fatxadan ageri zen armarrak.

Nafarroako Jauregiaren fatxadako armarrak ez dio ezertarako ere eragiten haren egiturari, eta armarrak kentzeko eragozpenik ez dago; areago, erraz ken daiteke.

Horregatik guztiagatik, Parlamentu honek 2003ko martxoaren 10ean onetsitako adierazpenarekin bat, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala ordeztu dezan Nafarroako Jauregiaren San Ignazio etorbideko fatxadako goiko trianguluan ageri den Nafarroako Armarrak, bai eta gure erkidegoan egon litekeen beste edozein sinbolo frankista ere.

Iruñean, 2011ko martxoaren 10ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu-emanen ekin diezaien, txirrindularien 2012ko Espainiako Itzulia Nafarroan, Iruñean, has dadin.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hartu-emanen ekin diezaien, txirrindularien 2012ko Espainiako Itzulia Nafarroan, Iruñean, has dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu-emanen ekin diezaien, txirrindularien 2012ko Espainiako Itzuliaren antolatzaileekin, 2012ko Espainiako Itzulia Nafarroan, zehazki Iruñean, has dadin.

Urtean zehar badira zenbait kultur edo kirol ekitaldi, hona dakarguna kasu, egiten diren herriei edo lurraldeei proiektio berezi bat ematen dietenak. Azken urteotan, Espainiako Txirrindularitza Itzulia eskualdez eta mugaz gaindiko ekitaldi horietako bat bihurtu da, marketin arloko berrikuntza handiei esker baliagarri direnak kirolari balioa emateko, eta kirolari ez ezik ekitaldi horiek antolatzeko laguntza handia ematen duten herriei eta erkidegoei ere bai. Gure ustez, oso egokia eta aldi berean berritzailea da, turismoaren eta kulturaren

ikuspuntutik, gisa horretako gertakari bat baliatzea Nafarroa eta Iruña jartzeko denbora luze batez mundu osoko herrialdeetan ikusi eta bizi den kirolgertakari baten erdi-erdian.

Kontuan hartu behar dugu,, orobat nafarroak bereziki maite eta errespetatzen dugula kirol hori, zeinean arrakasta ugari lortu baitugu Miguel Indurain gure txapeldun handiaren bidez.

Espainiako Itzulia Nafarroan hastea plataforma handi bat da, berritzailea eta indartsu-indartsua, baliatzen jakin beharko genukeena, erkidego garen aldetik gure interesa erakusteko eta antolatzaileei helarazteko.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuaren ustez garrantzitsua da baliatzea Espainiako Txirrindularitza Itzulia bezalako gertakari bat antolatzeak dakarren plataforma, eta, zehazki, Espainiako 2012ko Itzulia hasteko egoitza izateak dakarrena, gertakari hori ustiatze aldera Nafarroa nazioan nahiz nazioartean turismoaren eta kulturaren ikuspuntutik proiektatzeko plataforma gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu-emanen ekin diezaien, txirrindularien 2012ko Espainiako Itzuliaren antolatzaileekin, Nafarroan, zehazki Iruñean, has dadin 2012ko Espainiako Itzulia eta hori hala izan dadin bete beharreko baldintzak zehatz daitezten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Iruñeko Udalarekin eta gertakari horretan parte hartzeko interesa erakusten duten toki entitateekin batera ahaleginak egin ditzan, Nafarroaren irudiaren proiektiorako programa ahalik eta osatuena eta onuragarriena taxutze aldera.

Iruñean, 2011ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak deitoratzen du Euskalerrria Irratiaren nahi gabeko irregulartasun-egoeraren aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jarrera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkar-teak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak deitoratzen baitu Euskalerrria Irratiaren nahi gabeko irregulartasun-egoeraren aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jarrera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iazko martxoaren 16an ebazpen bat onetsi zuen Diputatu Kongresuko Osoko Bilkurak, zeinaren bidez autonomia erkidegoak premiatu baitzituen berrikerik ditzaten irregulartasun egoeran halakorik nahi izan gabe dauden tokiko irratien kasuak, epaitegiek onartutakoak, horretarako baliatuz autonomia erkidegoek autonomiaz beheitiko esparruko FM-ko zerbitzu publikoaren prestazioaren emakidaren arloan dituzten eskumena.

Urtebete igaro da eta Nafarroako Gobernuak ez du deus ere egin Euskalerrria Irratiaren arazo aski ezaguna konpontzeko.

Gai hau askotan jorratu dugu Osoko Bilkuran, baina egoerak argitu gabe jarraitzen du, irratiraultza ez da oraindik gertatu eta agindutako babes-neurri zehatzak ez dira inon ageri, nahiz eta Gobernuak eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak legegintzaldi hasieran egindako hitzaldian adierazi neurri zehatzak hartuko zirela egoera argitzeko eta, halatan, herritarrei legegintzaldiaren amaieran kalitate handiagoko zerbitzua eman ahal izateko.

Erkidegoaren egoerari buruzko 2010eko eztabaidan erabaki bat onetsi zen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatu baitzen arazo honi konponbidea eman ziezaion, irradi-erregulartasun handituz eta lizentzia gehiago emateko aukera eman, hartara konponduko baitira bere garaian Radio Universidad de Navarrari eta Medios de Comunicación 21ri lizentzia ematean eginiko irregulartasunak.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak deitoratzen du Euskalerrria Irratiaren nahi gabeko irregulartasun-egoeraren aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jarrera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du arazo honi konponbidea eman diezaion, irradi-erregulartasun handituz eta lizentzia gehiago emateko aukera eman, hartara konponduko baitira bere garaian Radio Universidad de Navarrari eta Medios de Comunicación 21ri lizentzia ematean eginiko irregulartasunak.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal eta Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Estatuko Gobernua premiatzen da 10 neurri hartzera, tortura desagerrarazte aldera.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Espainiako Estatuko Gobernua premiatzen da 10 neurri hartzera, tortura desagerrarazte aldera.

Mozio hori 2011ko martxoaren 11ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Nikaraguako haurren aurkako sexu-indarkeriari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko martxoaren 14n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bitartez adierazpen hau helaraz diezaion Nikaraguako Gobernuak lehendakari Daniel Ortigari, zertarako eta Nikaraguako Gobernuak:

Plan nazional bat taxutu eta ezar dezan haurren aurkako sexu-indarkeriari aurrea hartzeko, baita familiako kideek egindakoari ere, bizirik dirautenak babesteko eta arduradunak justiziaren esku uzteko.

Bortxaketatik bizirik ateratzen diren neskatoei babes osoa eta laguntza mediko eta psikosoziala eman diezaien, haien leheneratze fisiko eta psikosoziala eta gizarteratzea ziurtatzeko.

Sexu-abusua eta bortxaketa pairatu duten neskatoei erreparazio integrala ziurta diezaien, eta hartu beharreko neurriak har ditzan beren bizitzak

berregin ahal izateko. Horrek berekin dakar Zigor Kodea aldatzea, emakumeen eta neskatoen sexu nahiz ugalketa eskubideak ziurtatzeko.

“Familiako tratu txarren eta sexu-erasoen delituen kasuetan jarduteko Protokoloa: polizientzako, fiskalentzako, auzitegiko medikuentzako eta epaitegiko langileentzako gida” aplikatzen dela ziurta dezan, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak finantzatu zuena, sexu-indarkeria pairatu duten adingabeak berriz ere biktima izatea ekiditeko.

Nazio Batuetako bost batzordeak –Haurren Eskubideen Batzordeak, Torturaren aurkako Batzordeak, Giza Eskubideen Batzordeak, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordeak eta Emakumearen aurkako Diskriminazioa amaiarazteko Batzordeak– gaiari buruz eginiko gomendioak bete ditzan.”

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Liburutegiko larrialdietarako eta segurtasuneko gaztelaniazko barne-errotulazioari buruzkoa.*PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Liburutegiko larrialdietarako eta segurtasuneko gaztelaniazko barne-errotulazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Paula Kasaresek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko galdera hau egin nahi du Kultura eta Turismo-Vianako Printzea Erakundearen Departamentuko Kontseilariak erantzun diezaion.

Zer dela atea zabaldu berriko Nafarroako Liburutegian larrialdi eta segurtasun barne errotulazio osoa gaztelania hutsean dago?

Iruñean, 2011ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Paula Kasares

Galdera, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta 2010ean betetako gastuari buruzkoa.*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta 2010ean betetako gastuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planak 502.354.319 euroko gastu publikoa dakar, guztira. Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Zein da Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan Nafarroako Foru Komunitatean guztira betetako gastua 2010ean?

2.- 2010ean egindako gastutik, zenbat egiten du Nafarroako Gobernuak egindako gastua eta

zein Europar Batasunak FEADER-en bidez egindakoa?

3.- 2010ean egindako gastuetatik eta Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak ardatz bakoitzerako jarritako kopuru zehatzetatik:

a) Zenbat diru bideratu da nekazaritzaren sektorearen lehiakortasunari buruzko 1. ardatzera?

b) Zenbat bideratu da FEADER-en 2. ardatzera (garapen jasangarria eta ingurumena errespetatzen duena)?

c) Zenbat bideratu da 3. ardatzera?

d) Zenbat bideratu da 3. ardatzera (Leader)?

Iruñean, 2011ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko ea inork urratu ote dituen Nafarroan, 2010ean, kalitate bereziko markei buruzko araudia eta baldintza-orriak.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea inork urratu ote dituen Nafarroan, 2010ean, kalitate bereziko markei buruzko araudia eta baldintza-orriak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Aitor Etxarri Pellejerok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

• Zenbat eta nortzuk dira Nafarroan 2010. urtean kalitate bereziko markei buruz bete ez dituzten araudiak edo urraturiko xedapenak?

Iruñean, 2011ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena.

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamenean akats bat aurkitu da gaztelaniazko testuan. Proposamen hau 2011ko martxoaren 8ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona zuzenketa:

Gaztelaniazko testuan, 16. orrialdean, proposamenaren bukaera argitaratu gabe gelditu da. Horrela bukatu beharko zuen:

“2. Se autoriza a la Mesa del Parlamento de Navarra para que en el plazo de cuatro meses a partir de la entrada en vigor de esta reforma elabore un texto refundido del Reglamento del Parlamento de Navarra, al que se incorporen las modificaciones aprobadas”

Iruñean, 2011ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda